



MUSIKA

Zergatik den Chill Mafia azken aldiko lanik interesgarrienetako bat

XALBA RAMIREZ

Chill Mafiakoek jokoa pasa dute eta ez duzue ezer ulertu" gisako sententziak ibili dira Twitterren *Zure Kebapa* eta *Gazte Arruntaren Kopla* kantak kaleratu ostean. Ezer ulertu aurretik etorri da hika-mika eta zalaparta, EiTbN playback kontzertua eta guzti, Eskorbutoen antzera.

Ezorregatik X berpizkundera da Chill Mafia Records-en laugarren mixtapea. Lehenago kaleratu zituzten *Tabako*, *Pepa Stepa* eta *Young, Gifted & Basque* (Nina Simone oroitzuz). Aurrekoak trapetik gertu dauden arren, azken lan honek ez du ezer trapetik (Aitor Bizkarrak planteatutako metamusika ez bada). Harrigarria hedabide guztiek hala deitzea egin duten lanari. Ulertzen hasi naiz "ez duzue ezer ulertu" leloa.

Formalki da garrantzitsua *Ezorregatik* lana. Kanten egitura erdi arbitrarioak, estiloen hibridazioa, sampleak eta etxean kozinatutako efektu sorta. Apurtzailea da, ez duelako erreferentzia estetiko zuzenik ez Euskal Herrian ezta inguru hurbilean ere. Eta hori gutxi baltitz, apurtzailea da euskalduntasun ez

hegemonikotik egin delako, langile auzotako errealtatearen ispilu.

Nork kantatzen du gazte baten ikuspuntuaz eta eguneroko urgentziez? Erromantizatuta ditugu erabat 80ko hamarkadako sexua, drogak eta rock-and-rolla, baina asalatu egiten gara sexu oralaz, MDMAz, kale borrokaz eta instagrameko ligoteoaz entzuten badugu (euskaraz behintzat). Nihilista deitzen diegu gazteoi, eta bitartean belaunaldi zaharragokoak *cross fit*, yoga eta mendi lasterketak egiten eta "egonkortasuna" bilatzen ari gara. Baina, tamalez, denok *No Future* aroan gaude, eta gazte langilearen ahotan ez daude aurreko belaunaldiaren interes eta problematikak.

Kontua ez da politikoki zuzena den ala ez, baizik eta orain arte beto izugarriak jarri dizkiogula gure buruei (eta auzokoei), moral kristauaren itzalean beti. Banksyren murala oroitzuz, arteak eroso daudenak asalatu beharko lituzke eta asalatuak kontsolatu. Hor dago Arrotxapeako gazte hauen ekarpena.

Erabilitako erreferentzia aberatsen bilduma da aipatzeko hirugarren pun-



EZORREGATIK X BERPIZKUNDEA CHILL MAFIA

CHILL MAFIA RECORDS

tua. Sortu berri den *Klak.eus* hedabidean eginiko elkarrizketan, taldekideek zalantza egin dute Gabriel Aresti edo Jon Mirande, bietatik zein nahiago duten. Zalantza egin dute. Barkatuko didazue, baina zein euskal artista da gai bi euskal poeta zutarri horien artean zalantza egiteko? Zein, gainera, euskara baldarrez, homologatu gabeko euskalduntasun periferikotik? Hori gutxi ez eta Ez dok Amairukoek egin bezala, Ipar Euskal Herritik hartzen dituzte erreferentziak gazteok: Zuberoako kankak, Erramun Martikorena eta Maddi Oihenart ari dira sampleatzen gutxienez 2016tik hona.

J Martina taldeko Kattalineek Giorgio Agamben filosofoaren *Zer da garaikidea* testua pasa zigun, "norbere mendeari nork kantatzen dion" galderaren inguruan gogoeta eginez: "Garaikidea izateak esan nahi du, inoiz egon ez garen orainaldi horretara itzultzea". Gazteak arrotzak dira beti euren herrian. Euren den garaia pentsatu eta moldatu behar dute. Eta zorionekoak gu, belaunaldi berrien airea arnastu dezakegulako. "Geroa begiratuz ilun baitago dena". ●

